

PRENTSA OHARRA

BILBOKO KALEALDIAK BILBOKO KALE NAGUSIA BETEKO DU BIHAR GÉNÈRIK VAPEUR KONPAINIA FRANTSSES EZAGUNAK AURKEZTUTAKO GIZON URDINEN KALEJIRA IKUSGARRI ETA ZARATATSUAREKIN

Kaleko Antzerki eta Arteen Jaialdia bere erdigunera helduko da bihar, gehien itxoitzen den ikuskizunetako batekin: *"Bivouac"* BIHAR bakarrik ikusi ahal izango da, gaueko 21:30etatik aurrera, Kale Nagusia, Moyua eta Arriaga plazen artean.

+ INFO: www.bilbokokalealdia.com

Bilbon, 2011ko uztailaren 6an. Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailak antolatutako BILBOKO KALEALDIA, Kaleko Antzerki eta Arteen Jaialdia, bere erdigunera helduko da bihar, eta programazio osoko ikuskizun ikusgarrienetako batekin iritsiko da. Gaueko 21:30etatik aurrera, Bilboko Kale Nagusia, Moyua eta Arriaga plazen artean, *"Bivouac"* ikuskizunaren emanaldi bakarra eskainiko duen Génèrik Vapeur konpainia frantsesaren eszenatoki bilakatuko da.

Gaueko 21:30etan, hasiko da musika ibiltariko *"Bivouac"* ikuskizuna. Bertako protagonistak, kaleetatik, iturrietatik, eserlekuetatik, estatuetatik... hedatuz, hiri osoa hartuko duten gizon eta emakume urdinak dira. 27 urteko ibilbidea duen kaleko musika eta antzerki konpainia horrek mundu osoko hogeitaz artista eta teknikari biltzen ditu, hiri osoko hiri paisaia aldatzeko xedez. Bertan dauden ikus-entzuleek, ikuskizunarekin aurrez-aurre parte hartzeko gonbidapena jasotzen dute, paperik eta libretoz gabe, kaleko antzerki gordina.

Aurten Bilbora helduko den ikuskizuna lau kontinentetako 12 herrialdetan egon da. *"Bivouac"*, gizon urdinez osatutako kalejira ikusgarri eta zaratatsua da, eta Kale Nagusian ikusi ahal izango da, Moyua eta alde zaharra artean, izan ere, ikus-entzuleak, Arriaga plazarako bidea zabalduko duen kamioi handia aurrean dela, artisten atzetik joango baitira. Musika, zarata, su artifizialak eta beste zenbait ezustek eta une ikusgarri osatzen dute ikuskizun hori.

DANTZA BERTIKALA

Ikuskizun handi horrek hirian utziko duen eragina irensteko

denborarik gabe, 23:00etan "Repíte conmigo" ikuskizuna hasiko da, "Alizia herrialde harrigarrian" fabulan inspiratutako dantza bertikal emanaldi ederra, Delrevés konpainia katalanaren eskutik. Proposamen horren eszenatokia BBVA eraikinaren fatxada izango da, Bilboren bihotzean. Ikuskizun horrek beste emanaldi bat ere izango du, UZTAILAREN 8an, gaueko 22:30etan.

EGITARUA

OSTEGUNA, UZTAILAK 7

18.00 / 19.30: Areatzako kaia - Circlou "Voltica".

18.30 / 20.00: Areatza - Lusco e Fusco "Encontres".

20.00: Epalza kalea - Cie. Kitschenette "On passe á table!"

20.30: Plaza Barria - La Chouing "Cendres"

21.30: Moyua plaza -Arriaga plaza - Génèric Vapeur "Bivouac"

23.00: BBVA etxe-orratza - Delrevés "Repíte conmigo"

PRENTSA BULEGOA

Irma Cerro (MBN Comunicación)

T: 94 435 63 30

M: 628 538 215

irmacerro@grupombn.com

UDALA . AYUNTAMIENTO

Prensa Kabinetea – Gabinete de Prensa E. Erkoreka Plaza, z/b 48001 Bilbao

Tfn: 94 420 52 94 Faxa: 94 420 52 16 H. elek: prensa@alcaldia.bilbao.net

www.bilbao.net